

### Donezteben, 1998ko irailaren 25ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
 H. Knörr, buruordea,  
 P. Goenaga, idazkaria,  
 J. A. Arana, diruzaina,  
 M. Azkarate,  
 P. Charritton,  
 J. L. Davant,  
 X. Diharce,  
 X. Kintana,  
 E. Larre,  
 J. M. Lekuona,  
 B. Oihartzabal,  
 P. Ondarra,  
 Tx. Peillen,  
 P. Salaburu,  
 J. San Martin,  
 I. Sarasola,  
 J. M. Satrustegi,  
 A. Urrutia  
 eta P. Zabaleta  
 euskaltzainak  
 eta  
 J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,  
 J. J. Zearreta, ekonomia eragilea eta  
 R. Badiola, argitalpen Eragilea (gai zerrendako azken puntuan)

Donezteben, Udaletxeko batzar gelan, 1998ko irailaren 25ean egin du Euskaltzaindiak hileko bilkura. Bilera goizeko hamarrak eta hogeian hasi da. Ezkerreko zutabeen jaso dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute P. Altunak eta F. Krutwigek.

*Aurreko agiriak onartzea.*

Uztaileko bi agiriak onartu dira huts txiki batzuk zuzendu ondoren.

*Euskaltzainburuaren hitzak.*

Lehenbizi, zorionak eman dizkio euskaltzainburuak X. Kintanari aita izan baita berrikitan.

Bestalde, J. Kerexeta jaunaren heriotzaren berri eman die euskaltzainei. Elorrioren egindako hileta elizkizunean Euskaltzaindia ongi ordezkaturik egon zela esan du. Hilberri txostenaz denaz bezainbatean, K. Etxenagusia ohorezko euskaltzainari eskatu zaió egitea. Bilbon izango den hurrengo bilera irakurriko da. J. Etxaide zena ere han irakurriko da.

Etxaideren familiak Euskaltzaindiari gutun bat igorri diola jakitera eman du Haritschelhar jaunak, hilaren artxiboa Euskaltzaindiaren esku uzteko asmoa dutela esaten duena. Gai hau behar bezala kudeatzeko modua egingo dela esan du.

#### *1. Hizkuntza arauak.*

##### *1.1.1. Hiztegi Batuko **makineria - maldatu** arteko hitzak onartzea.*

Zerrenda eztabaidatzen hasi aurretik, ohar bat ekarri du batzordeak. *Mortero* hitzaren definizio gisa -hurrengo bilera aztertzeke zerrendakoa berau- *kare-ore* ematen da. Horrenbestez, *kare-ore* hitza ere dagokion zerrendan sartu beharko litzateke, *josi -koala* zerrendan, hain zuzen. Onartu da.

Ondoren *makineria* - *maldatu* zerrenda hartu da aztergai. Hitz hauek, okerren bategatik, aurreko zerrendetan ez ziren ageri. H. Knörrek eta A. Urrutiak ekarri dituzte oharrak.

Knörr jaunaren eskariz, *makur-2* sarrera pitin bat zehaztea onartu da: “batez ere *Ipar*.” dela esango da.

*Maluruski* eta *maluta* hitzak falta direla dio ohargileak, baina lehen onartutako zerrendan ageri ziren.

A. Urrutia jaunak zenbait tipografiatzeko hutsegite (puntuak falta zenbait laburduratan) hauteman ditu. Zuzenduko dira.

*Malatu* hitza sartzea onartu da, ‘erretena’ adiera emanaz.

*Malmuts* hitzari buruzko oharra ez da kontuan hartu, aurreko zerrendan jadanik onartua izan baitzen *malmutz* forma.

### 1.1.2. *Hiztegi Batuko matrize - mintzura zerrenda.*

Zerrenda honi buruz X. Kintana jaunak aurkeztutako oharrak hartu dira lehenbizi aztergai.

Lehenbiziko eztabaida *medikamentu* eta *medizina* hitzei buruzkoa izan da. Azkeanean, *medikamentu* zerrendatik ateratzea onartu da, bigarren itzulirako utziz. *Medizina*, berriz, dagoen bezala uztea onartu da.

*Melokotoi*, *mertxika* eta antzekoek eman dute hizpidea ondoren. Gauzak nahiko nahasturik dabiltzala dirudi. Oraingoz, badirudi *mertxika* dela *melokotoi* hitzak izan lezakeen ordainik argiena. Beraz, hori gordeko da *melokotoi* esateko. Gainerakoak (*alberrexiko*, *muxika*, *mixurka* eta abar) hurrengo itzulian argitezketan utzi dira.

*Mendabeltz*-en ondoren tarte zuri bat behar denez, hori zuzenduko da.

*Mendu/mentu* eztabaidaren ondorioz, lehenbizikoa gutxi erabilia omen denez, zerrendatik kentzea onartu da.

*Merindade* sarrera dagoen bezala uztea erabaki da, batzordearen proposamenaren arabera. Orobat, *merkantzia* sarrera ere.

*Merkaturatu* sarreran aditz horren erregimena markatzea eskatzen du ohargileak. Batzordearen proposamena *du* gisa markatzea da, *Ekon.* arlokoa dela markatuz. *Merkaturatu naiz* (cf. *etxeratu naiz*) modukoak ez dira oso erabiliak, nahiz eta zilegi diratekeen.

*Mertzenario* hitzaren ondoren ageri den F marka kentzea onartu da.

*Mesias/Mesiah* auzia aurkezten du ohargileak. Testuetan lehenbiziko forma da nagusi. Horrenbestez, dagoen dagoenean uztea erabaki da.

*Mesprexatu* aditzaren erregimena markatu gabe dago. *Du* erregimenekoa dela adieraziko da.

*Mikra/mikroi* bikotean ohargileak zalantza ageri du: *mikron* nazioarteko hitzak azentua azken silaban ote duen. Hala bada, ongi legoke *mikroi* forma. Baina *mikron*

bada hitza, orduan gauzak beste modu batera izango lirateke. Dena dela, frantsesez hitzak azentua azken silaban omen du. Horrenbestez, zerrendan jasotzen dena ongi jasoa legoke. Dagoen bezala utzi da, horrenbestez.

*Miliarka*-ri aparteko hitz bati dagokion sarrera ematea onartu da.

Ordoren, H. Knörren oharrak jarri dira mahai gainean.

*Matxete* hitza ez litzateke, Knörr jaunaren aburuz, *aihotz*-en pareko. Eztabaida luzea izan da. Azkenean, 'aihotz mota' dela esango da.

*Megafonia* ez omen da gaztelaniatik aparte inon erabiltzen. Onartu da zerrendatik ateratzea. Hala ere, ordainetan, *megafono* hitza sartzea onartu da.

*Mehaztu* hitzari adiera eranstea eskatzen da. Honek ere eztabaida gogorra ekarri du. Hor ageri den *h* letrak sortu du zalantza nagusia. Azkenean, batzordearen proposamena gauzak dauden bezala uztea da. Hala ere, botoetara jo da: 11 boto izan dira *h* eta guzti idaztearen aldekoak.

Eztabaidan hitz horren adiera zein datekeen ere harrotu denez, eta, dirudienez, gauzak zenbaitentzat argiegi ez daudenez, J. San Martin jaunak eskatu du bere iritzia agerian agerraraztea: ez du botoa eman, zer esan nahi duen argi ez delakoan.

*Mekano* hitza dagoen bezala uztea erabaki da.

*Memelo* sarrerari *Herr.* oharra ezarriko zaio, *mamala*-ri ezarri zitzaion bezala.

*Meneko*, ohargilearen iritziaren kontra, ageri da jadanik zerrendan. Beraz, ez da oharra kontuan hartzen.

*Mendean hartu* sartzea onartu da.

*Ments* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Meritu* hitzari ez dio ohargileak *merezimendu*-ren maila aitortu nahi. Hala ere *Maileguen* zerrendatik datorkigunez, *Herr.* marka ezarri ematea onartzen da.

*Merkaldi*-k ere bere sarrera izango du, baina 'e. *merkealdi*' oharra alboan duela.

*Merelu* bigarren itzulirako uztea onartu da.

*Metafisikari* zerrendatik kentzea onartu da.

*Mezalari* sartzea eskatzen du Knörr jaunak. Baina testuetan ez da ageri. Beraz, bigarren itzulirako, izatekotan.

*Mihipeko* sartzea onartu da.

*Milatan miletan*-ekin berdintzea ez du gustuko ohargileak. Hala ere, Iparraldean hala erabiltzen omen denez, dagoen dagoenean uztea erabakitzen da.

*Minkorkeria* hurrengorako uztea egokiago ikusi da.

*Mintu* sartzea onartu da, baina *mindu*-ri emango zaio lehentasuna: **mintu**\* e. *mindu* ezarriko da ohar gisa.

A. Urrutia jaunaren oharrei dagokienez, *matutia* hitza sartzea onartu da. Baita *matxingorri* ere.

Ondoren, *matxuratu* hitzaz izan da eztabaida. Aditz honen erregimenak ere zalan-tzak sortarazten ditu. Azkenean botoetara eramán da sartu ala hurrengo itzulirako utzi. Bederatzi euskaltzain hurrengo itzulirako uztearen alde agertu dira, zazpi orain sartzearen alde eta hiruk zuriz bozkatu dute. Horrenbestez, hurrengorako uztea erabaki da.

*Maula/maula* egin hurrengo itzulirako uztea hobetsi da.

*Mausoleo* eta *menu* hitzak sartzea onartu da.

*Medeatu* bigarren itzulirako utzi da.

*Menekotasun*-i buruzko lekukotasunik ez omen da testuetan. Horrenbestez, ez da onartu zerrendan sartzea.

*Mespretxatu*-ri buruzko oharra dela eta, onartzea proposatzen du batzordeak. Honela geratuko da, hortaz: **mesprezatu\*** e. **mespretxatu**.

*Metamorfosi*, *meteorito* eta *mezalagun* hitzak sartzea onartu da.

*Miletan* lehenago eztabaidatutzat eman da.

*Milika* hitzari sarrera egitea ontzat eman da. Honela geldituko litzateke: **milika** batez ere Ipar. iz. eta adlg. *bildotsak amaren milika behar du; milika ari da*.

*Mineri* sartzea ohargileak ongi ikusiko lukeen arren, ez da onartu. Baina *mineralogia* sartzea proposatzen du batzordeak, *kristal* sarrerán hitz horren erabilere-mua mugatzeko sartua baita. Onartu da. *Mikrofilm* hitzari ere sarrera egin behar zaiola ikusi da, *filMOTEKA* sarrerán agertzen baita hitz hau ere.

Ondoren, eztabaidarako utziak ziren hitzez izan da solasa.

*Mehetu* ala *mehatu* behar duen eztabaidatu da lehenbizi. Lekukotasunen aldetik nahiko berdinduak ageri omen dira. Agian, *mehetu* gehixeago ageri da. Horrenbestez, honi eman zaió lehenatasuna, honela utziz sarrera: **mehatu** Ipar. h. **mehetu**.

*Menderatu* eta *kidekoez* izan da hurrengo eztabaida luzea. Zenbaiten ustez, *menderatu/meneratu/menperatu* hirukotean bati eman behar litzaióke lehenatasuna, batasunaren izenean. Beste zenbaitek adiera desberdintasunik ikusten ditu hitz horietan. Beste zenbaiten ustez, berriz, hiru hitz desberdin izango lirateke, nolabait sinonimoak eta, horrenbestez, batu beharrik ez litzateke izango hor. Azkenean, hurrengorako uztea erabaki da. Bakoitzak egin dezala gogoeta eta ikus ditzala balizko diferentziak. Horren arabera hartuko da erabakia.

*Mertxikaondo/mertxikondo* bikotean bigarreña onartu da.

*Metraila* eta *kidekoez* gauzak zerrendan ematen diren bezala uztea erabaki da. Hala ere, *mitrailus* hitza hurrengo zerrendatik ezabatu egingo da.

*Metro karratu/metro kuadro* eztabaida ere luzea izan da. Ikastoletan eta abarretan *karratu* dirudi dela kurritzen duena. Aurreko zerrendan *koadro*-ri eman zaió lehenatasuna. Kontsulta egin ondoren, bi formak dabiltzala ematen du. Horrenbestez, eta batera edo bestera lerratzeko argudio sendoegirik ezean, oraingoz gauzak erabaki gabe uztea onartu da. Denborak erabakiko du.

Zerrendan bizkaierazko *min* hitzaren ondoan *mihi* ageri da, hau hobesten dela. Eztabaidatu ondoren, bozkatu egin da eta hamabi euskaltzainen botoei esker, sarrera ho-

rretan "h." oharra kentzea erabaki da, "mihi" hitza adiera azaltzeko erabiliz: **min-2** 'mi-hia'.

*Minagre* sarrera dagoen bezala utziko da.

### 1.1.3. *Hiztegi Batuko minuet - nahastura zerrenda aurkeztea.*

Hurrengo bileran eztabaidagai izango den zerrenda hau banatu zaie euskaltzainei. Beti bezala, oharrak egiteko epea hilaren 20an ezarri da.

## 2. *Eskuartekoak.*

Duela gutxi Euskaltzaindiak argitara eman duen Arauen CD-ROM-a banatu zaie euskaltzainei.

Bestalde, W. A. Douglass jaunak gutun bat egin dio euskaltzainburuari eskerrak emanaz euskaltzain ohorezko izendatzeagatik. Gutun honen kopia bana eman zaie euskaltzainei.

Eta ordu biak eta bostean amaitu da goizeko bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga